

# ARABAKO CAMPUSA

## KUDEAKETA TXOSTENA

2016-2017

### 1. Azpiegiturak

---

#### 1.1. Micaela Portilla ikergunearen inaugurazioa.

- 2017ko apirilaren 10ean, Micaela Portilla Ikergunearen inaugurazio ofiziala egin zen. UPV/EHUko errektorea eta Iñigo Urkullu lehendakaria izan ziren ekitaldian.
- Ekitaldi horretan, "DNA, Kimika Analitikoa eta Geoarkeologia Europako hegomendebaldoko lehen artzain jardueretan" izeneko mintegia egin zen.
- Ikerketarako guneak esleitzeari dagokionez, 2016ko azaroaren 15ean, ikastegian guneak aldi baterako esleitzeko behin betiko erabakia argitaratu zen (1. fasea). 2017ko urtarrilaren 13an, Ikerketako Errektoreordetzak deialdiaren 2. fasea argitaratu zuen. Une honetan, 12 ikertalde ari dira lanean ikastegian, eta laster beste bi gehituko zaizkie.
- Gainera, Master eta Doktoregoko Eskolaren campuseko egoitza ezarri da ikastegian, eta Ikerketa Laguntzeko Zuzendaritza, Prestakuntza eta Ikerkuntzarako Unitateetako bi teknikairekin batera. Beheko solairuko bi bulego egokitu dira horretarako.

#### 1.2. Ikastegietan eraberritze eta egokitzapen lanak egiteko plana garatzea.

- Aurreko ekitaldietan eginiko lanari jarraiki, egurrezko txirbilez eginiko sabai akustiko modular berriak instalatzen jarraitu dugu, egokitzapen akustikoari begira, eta argiztapen instalazioak egokitu dira, ikasgeletan eta campuseko lokaletan, ingurumen ikuspegitik egokiagoak diren argiak ipinita orain arte zeuden argien orde. Beraz, 57/16 PN espedientearen bidez, hainbat lokal egokitu ditugu Hezkuntza eta Kirol Fakultatean, Ingeniaritza Unibertsitate Eskolan eta Farmazia Fakultatean.
- Hezkuntza eta Kirol Fakultateko IKD gela berritu eta altzari berriak jarri ditugu, eta Tatami gela ondoko bainugelak eraberritu.
- Ingeniaritza Unibertsitate Eskolan, mugimendu detektagailuak jarri dira komunetan, energia aurrezteko.
- Farmazia Fakultatean, kafetegiaren lokala berritu dugu, aireztapen sistema berria ipiniz eta instalazio elektrikoa hobetuz. Led argiak ere ipini dira.
- Bestetik, larrialdi argi berriak ipini dira hainbat ikastegitan (Hezkuntza eta Kirol Fakultatea, Ingeniaritza Unibertsitate Eskola, Lascaray Ikergunea).

- Dagokion lizentzia lortu ondoren, 3. kategoriako instalazio erradiaktibo bat ireki dugu Lascaray Ikergunean, eta aldatu egin da hondakin erradioaktiboen biltegiaren itxitura, Eusko Jaurlaritzak jarritako baldintzak betetzeko.
- Kanpoko arotzeria berriak ipini dira Letra Fakultateko bulego batean, Hezkuntza eta Kirol Fakultateko makinaren gimnasioan, eta ikastegi horretako beheko solairuko mintegietan eta bulegoetan.
- 37/17 CM espedientearen bidez, ikastegien lokalak eraberritzeko proiektua idatzi da, eta lanak adjudikatzeko tramitazioa hasi.
- Campusaren Irisgarritasun Plana garatu eta irisgarritasun unibertsala bermatzeko Arabako Campuseko Errektoreordetzaren eraikinean, azterlan bat egin da ate nagusian mekanismo zabukari bat instalatzeko. Gainera, ate automatikoak berrikusi eta mantentzeko lanekin jarraitu dugu, campuseko eraikinen sarrera nagusietan.
- Gure ingurumen kudeaketa hobetu eta energia aurrezteko helburuarekin, abiadura aldakorreko konpresore bat ipini dugu Lascaray Ikergunean.
- Hondakin edukiontziak ipini dira Micaela Portilla Ikergunean, eta altzariak eta tresneria berritu, bai eraikinaren hondakin gelan bai arkeologia laborategian (apalategiak eta kubetak, eta hustubide berriak 4 kubetentzat eta haien 4 bidoientzat).
- 2016ko martxoan, enpresa espezializatu batek campuseko ikastegietako arbelak aztertu zituen (134 arbel), eta amiantoak izan zezaketen 7 bakarrik detektatu ziren. Maiatzean kendu ziren, eta berriak ipini.
- Azkenik, Errektoreordetzaren beheko solairuaren erreforma diseinatu dugu, bi helburuarekin: alde batetik, nazioarteko harremanen zerbitzuaren egoitza ipintzeko; bestetik, lan eremuak hobetzeko (irisgarritasuna eta funtzionalitatea). Era berean, ikasketa gela bat jartzea erabaki dugu, Elurreta Ikasgelategiko erreprografia gelak hartzen zuen lekuan. Lan hauek 2017ko azken hiruhilekoan egingo dira.

## 2. Ikasketen eta ikerketaren garapena

---

2.1. Komunikazio zientifikoko programa bultzatzea hainbat egitura eta ekitaldiren bidez.

- 2016ko Zientzia Astea antolatzea, Garapen Zientifikoaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzarekin elkarlanean.

2.2. Berrikuntzaren, Gizarte Konpromisoaren eta Kulturgintzaren arloko Errektoreordetzarekin lankidetzan, irakasle-ikertzaileen gaitasunak eta kualifikazioa hobetzeko jarduerak egitea.

- Arabako Campusean, irakasle-ikertzaileen behar espezifiko eta zeharkakoei erantzuteko helburua duen "Ikerkuntzarako laguntza metodologikorako mintegi iraunkorra"-ren deialdiaren barnean, haien gaitasunak hobetzera bideratutako prestakuntza jarduerak egin ditugu. Guztira, 9 ikastaro antolatu dira, eta 110 emakumek eta 75 gizonen parte hartu dute.

2.3. Prestakuntza eskaintzaren, programa osagarrien eta bestelako jardueren komunikazioa erraztea.

2.3.1. Udako campus teknologikoa antolatzea (AGORA Teknocamp), DBHko 1. eta 2. mailako ikasleentzat, Egibide, Innobasque eta Arabako Foru Aldundiarekin elkarlanean.

- 12 neskek eta 48 mutilek parte hartu dute campus honen lehen edizioan. 15 laguneko taldeak osatu dituzte, Arabako Campusean antolatutako bi jardueretan. 18 irakasle-ikertzaile aritu dira zientzien eta teknologiaren alorrean bokazioak piztea helburutzat duten jardueretan.

2.3.2. UPV/EHUko Udako Ikastaroak Fundazioari laguntzea Araban egiten diren ikastaroen antolakuntzan.

- Aurten, UPV/EHUko Uda Ikastaroen barnean, 11 ikastaro eskaini ditugu Arabako Campusean:
  - ✓ eGuneratzen. STI (Sexu transmisio infekzioak), Sexualitatea eta Sexukablog Web 2.0. hezkuntza programa interaktiboa (ekainak 15).
  - ✓ Era eraginkorrean komunikatzea informazioaren aroan (ekainak 15-16).
  - ✓ Zer esan diezagukete mapek eta informazio geoespazialak (ekainak 22-23).
  - ✓ Zientzia eta Berrikuntza ekoizpen ekologikoan (ekainak 26-27).
  - ✓ Welfare, gizarte aurreikuspena eta lanaren mundua. Europa, XIX. mendetik gaurdaino (uztailak 4-5).
  - ✓ Etorkizun jasangarri bat ardoaren munduan (uztailak 5).



- ✓ Gasteizko Nazioarteko Zuzenbide eta Nazioarteko Harremani buruzko ikastaroak (uztailak 10-14).
- ✓ Genomics in foodborne pathogen surveillance and outbreak investigation (uztailak 12-13).
- ✓ Hiri hezitzailea: Zer egiten dute udalek desberdintasunak berdintzeko? (uztailak 12-13).
- ✓ Joera berriak lurzoru degradatuen lehengoratzean: kultibo energetikoak eta fitogestioa Ekonomia Zirkularreko eredu batean (uztailak 13-14).
- ✓ Energia biltegitratzea, gizadiaren garapen jasangarrirako giltzarri (uztailak 17-18).

### 3. Esperientzia Gelak

---

#### 3.1. Giza Zientzien tituluaren irakaskuntza antolatzea.

- Giza Zientzien titulazioa antolatu dugu, lau urteko iraupena duena.

#### 3.2. Helduentzako Unibertsitate Ikastaroak (HUI) eta Ikastaro Osagarriak martxan jartzea.

- Helduentzako Unibertsitate Ikastaroak antolatu ditugu, karreran egin ez ziren hautazko irakasgaiekin eta hainbat gradutako irakaskuntza planetako irakasgaiekin ("Historia", "Artearen Historia" eta "Geografia eta Lurralde Antolakuntza").
- Zazpi ikastaro osagarri eskaini dira, ikasketa planetatik kanpo, irakasle espezializatuen eskutik.

#### 3.3. Esperientzia Geletako ikasleentzat interesgarriak izan daitezkeen bestelako jarduerak garatzea.

- Irakasgaien eta ikastaroen programak jarri ditugu web orrian.
- 1. mailako ikasleen harrera jardunaldiak egin dira. Besteak beste, tituluari buruzko informazioa jaso dute, UPV/EHUren webguneari buruzko tailer bat egin da eta bisita gidatu bat antolatu da campuseko bibliotekara.
- Matrikulaziorako kartelak eta liburuxkak argitaratu ditugu.
- Matrikulazio epeei buruzko iragarkiak argitaratu dira El Correo eta Diario de Noticias de Álava egunkarietan.
- Ikasturtearen hasiera ekitaldiaren ondoren (2016ko irailaren 26a), elkarrizketak egin zizkieten Puy Fernández Osés Giza Zientzien Unibertsitate Tituluaren zuzendari akademikoari, Radio Vitoria, Onda Cero eta Onda Vasca irratieta.
- Ikasturtearen amaiera ekitaldiaren ondoren (2017ko maiatzaren 25a), elkarrizketak egin zizkieten Puy Fernández Osés Giza Zientzien Unibertsitate Tituluaren zuzendari akademikoari, Radio Vitoria eta Radio Nacional irratieta.
- Urtarrilaren 30 eta 31n, Esperientzia Gelen V. Jardunaldiak egin ziren, Letra Fakultatearen Areto Nagusian. "Generoa, Zientzia eta Komunikazioa" izan zen gai monografikoa, eta pertsona adituek parte hartu zuten.
- Informatika tailer bat antolatu dugu, hastapen mailakoa, 1. mailako ikasleentzat gehien bat. Tailerraren helburua da IKTak erabiltzearen beldurra uxatu eta "arrakala digitala" txikitzea, oztopo bat delako gaur egungo gizartean parte hartzeko eta gure unibertsitatean gero eta gehiago erabiltzen diren baliabideetara iristeko.
- Beste ekintza batzuk: irakasgaien programak osatu eta beren testuinguruan kokatzeko, hainbat eratako jarduerak antolatu ditugu: hitzaldiak, bisitak museoetara, kultura ibilbideak, ABAOren opera entsegu orokorretan parte hartzea, jardunaldiak, etab.

Ekintza hauek guztiek hobetu egiten dute Esperientzia Geletan eskaintzen dugun prestakuntza, eta ikasleen motibazioa handitzen dute.

3.4. Esperientzia Geletako Ikasleen eta Ikasle Ohien Kultura Elkarteari (AEIKE) laguntzea bere jardueretan.

- Arte Erromanikoren I. jardunaldiak. Irudiak, sinboloak eta alegoriak. Sei hitzaldi antolatuta dira, bigarren lauhilekoan, honako erakunde hauekin elkarlanean: AEIKE, UPV/EHUko Artearen eta Musikaren Historia Saila eta Erromanikoaren Lagunen Elkartea.
- AEIKE eta Esperientzia Gelak I. Pintura Lehiaketa. Margolanak apirilaren 11tik maiatzaren 5era egon ziren ikusgai, Araba Aretoan.
- Hiru irakurketa antzeztu eta antzerki emanaldi bat, AEIKEko antzerki taldearen eta Esperientzia Gelen eskutik.

3.5. Ikasleek egiten duten “La voz de la experiencia/Esperientziaren Ahotsa” sei hilean behingo aldizkaria argitaratu eta hedatzea.

3.6. Elkarlanean aritzea UPV/EHUko sail eta ikastegiekin, baita beste erakunde eta elkarte batzuekin ere, gainerako unibertsitate ikasleentzako eta hiri osoarentzako jardueren antolakuntzan eta eskaintzan.

- Arte Erromanikoren I. jardunaldiak.
- Cervantesen ondarea. Urriaren 25, 26 eta 27an antolatuta ziren jardunaldiak, Letra Fakultatearen Areto Nagusian. Antolatzaileak: UPV/EHUko Hispaniar Filologia, Filologia Erromanikoa eta Literaturaren Teoria Saila, Arabako Campuseko Unibertsitate Hedakuntzako Zuzendaritza eta Esperientzia Gelak.

3.7. Informazioa trukatzeko harremanak ezartzea Arabako Aldundiko Hirugarren Adineko Ikasgelekin eta Gasteizko Udaleko Adinekoen Zentro Soziokulturalekin.

- Elkarlanean jarraitu dugu AGORA programaren barnean.
- Esperientzia Gelen jardueren berri eman dugu Gasteizko adinekoen zentro soziokulturaletan eta Arabako Aldundiaren Hirugarren Adinekoen Ikasgeletan. Gainera, bi erakunde horiek antolatzen dituzten jardueren berri eman zaie Esperientzia Geletako ikasleei.

#### 4. Hizkuntza garapena

---

Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzarekin lankidetzan:

##### 4.1. Euskararen III. Plan Gidariaren (2018-2022) oinarriak ezartzen hastea.

- Euskararen II. Plan Gidaria zer mailataraino bete den aztertu dugu, honako hauen bidez: aurreko ikasturteetan eginiko ekintzak baloratzea, irakaskuntza eskaintza elebiduna aztertzea (2012/2013 planaren luzapen-egokitzapenean ezarritako hizkuntza ereduen arabera), eta irakasle elebidunen beharrak aztertzea campusaren ikastegi eta graduatan. Lan hauek elkarlanean egin ditugu Euskararen arloko Errektoreordetzarekin eta Gipuzkoa eta Bizkaiko Euskara zuzendaritzekin.

##### 4.2. Euskararen erabilera sustatzea unibertsitate eremuan.

- Arabako Campusean, "EHUskARABANda" programaren barnean, askotariko jarduerak egin dira 2016/17 ikasturte osoan zehar: hala nola "#kafetapintxo" topagunea, helburutzat duena ikerketaren eta euskararen arteko harremana sendotzea, zeinaren bidez euskaraz diharduen ikertzaile sare bat sortu den campusean, dagoeneko bere lehen talde lana egin duena. Gainera, euskaraz eginiko laburmetraien lehiaketa antolatut dugu, eta Kalebegiak filmaren eta Basker dokumentalaren proiektioa, baita umore bakarriketa bat ere (Jose Cruz Gurrutxaga). Bestetik, Oihaneder Etxearen Hitz Adina Mintzo zikloan parte hartu dugu (Carme Junyet adituaren hitzaldia programaren aurkezpenean), eta "Ipar atlantiar kostaldeko euskal arrantzaren arkeologia" izeneko jardunaldietan.
- EHUskaralariak deialdia egin dugu, euskararen erabilera indartzeko unibertsitateko kideen artean, ikasleak, irakasle-ikertzaileak eta AZPko langileak barne.
- Hitzarmen bat izenpetu dugu Gasteizko Oihaneder Euskararen Etxea kudeatzen duen Lazarraga Kultur Elkartearekin, kultura arloko ekitaldiak antolatzeko lankidetzan, euskararen erabilera sustatzeari begira, bai campusean bai hirian.

##### 4.3. Euskara Teknikoa sustatzeko jarduerak bultzatzea.

- Euskararen eta Ikerketaren arloko Errektoreordetzei lagundu zaie euskarazko doktorego tesiak egiteko kontratuen deialdian.
- Euskararen arloko Errektoreordetzarekin elkarlanean, euskaraz argitaratzen diren aldizkarien argitalpena bultzatu da (Tantak, Ekaia, Gogoa, ASJU), baita bildumena ere (LIMES eta LEGEAK). Gainera, testuak banatu ditugu Oihaneder Etxean.

#### 4.4. Irakasle-ikertzaileak eta AZPko langileak prestatzeko jarduerak.

- Arabako Campuseko Errektoreordetzak, Euskararen arloko Errektoreordetzaren laguntzaz, euskara hobetzeko ikastaroen antolakuntzan parte hartu du: "Euskararen Arloko Errektoreordetzaren Euskarazko Hobekuntza Ikastaroak".

#### 4.5. Euskarazko irakaskuntza materiala sortzeko, egokitzeko eta hedatzeko laguntza ematea.

- Ikasliburuak euskarara itzultzeko eta euskarazko liburuak eta baliabide materialak (*Ikasmaterialgintza* eta *Testugintza* deialdia) sortzeko jarduerak babestu ditugu.
- Testuen banaketa unibertsitatearen ikastegietan.
- Testuak Oihaneder Etxean banatzea.

#### 4.6. Atzerriko hizkuntzen ikaskuntza bultzatzea campuseko unibertsitateko kideen artean: hizkuntzen laborategia kudeatzea.

- Arabako Campuseko hizkuntzen laborategia antolatu eta kudeatu dugu, ingelesaren, frantsesaren eta alemanaren autoikaskuntza bultzatzeko multimedia sistema baten bidez (TellMeMore), eta tutoretza laguntzen bitartez. Hizkuntzen Laborategia astean bi egunez zabaltzen da, 1,5 orduko saioak, eta unibertsitateko kide guztientzat zabalik dago.
- Ingeles Mintegiak eta Tailerrak antolatu dira, lauhilekoetan banatuta, hizkuntzaren hainbat arlo lantzeko, ikasle, irakasle eta AZPko langileentzat. Zehazki, mintegi hauek antolatu ditugu, helburutzat dutenak unibertsitateko kideen hizkuntza gaitasuna hobetzea: "Idazketa akademikoko saioak", "Elkarrizketa saioak", "English as a lingua Franca (ELF) phonology sessions" eta "Start up". Gainera, gai soziokulturalak lantzen dituzten tailerrak eskaini ditugu, hizkuntz interakzioa indartzeko: "Gasteiz Language Lab Blog" eta "Meet-up Time – Walk and Talk".
- Maiatzean, ikastaro trinko bat antolatu zen irakasle-ikertzaileentzat UPV/EHUren TOPTULTE (Test of Performance for Teaching at University level through the medium of English, C1 maila) azterketa prestatzeko.



## 5. Ekintzailtza eta laneratzea

---

Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko Errektoreordetzarekin elkarlanean:

5.1. INIZIA Arabacampus programaren garapena, Arabako Enpresen eta Berrikuntzaren Zentroarekin lankidetzan (Bic Araba), ekintzailtza eta INIZIA oinarri teknologikoko enpresa mintegia indartzeko Arabako Campusean.

- Ekintzailtza kultura zabaltzeko asmoz, jarduera hauek egin ditugu Arabako Campuseko INIZIA programaren barnean:
  - ✓ B-Cubes lehiaketa, E-Game bat garatzeko programa pilotua, enpresa bat sortu eta kudeatzea harturik gaitzat, ikasgelako hezkuntza tresna gisa, elkarlanean Gipuzkoa eta Bizkaiko Campusetako ekintzailtza bultzatzeko programekin eta Entreprenari eta Zitek egitasmoekin. 2.477 ikaslek parte hartu dute (214k, Arabako Campusean).
  - ✓ VI. Ekintzailtza / Inizia Arabacampus Sariaren deialdia, unibertsitateko hainbat kolektibori zuzendua. Hiru proiektu saritu dira.
  - ✓ Hasten Ikasten proiektu pilotua garatzea, Gasteizko Ingeniaritza Unibertsitate Eskolan eta Ekonomia eta Enpresa Fakultatean (Gasteizko atala), ikastegi horietako irakasleen laguntzaz. 4 ikasgelatako 150 ikaslek baino gehiagok parte hartu dute.
  - ✓ Ekintzailtzari lotutako gaitasunei buruzko prestakuntza emateko tailerrak eta jardunaldiak. Arabako Campuseko 71 kidek parte hartu dute (36 emakume eta 35 gizon).
  - ✓ SEC2U jardunaldia (Startup Europe Comes 2 Univerities), helburutzat duena Europako unibertsitateek berrikuntzaren eta ekintzailtzaren kulturarekin duten konpromisoa erakustea. 100 pertsona inguru izan dira jardunaldian, eta 234 lagunek jarraitu dute ekitaldia periscope bitartez.
  - ✓ Ekintzaileen arteko harremanak sustatu eta tokiko mintegien sare bat sortzeko baterako ekintzak diseinatu eta gauzatzea (Udala, Ajebask eta Bic Araba).
  - ✓ 2017ko martxoan eta ekainean, AGUDEZIA ekintzaileak prestatu eta tutorizatzen ikastaroaren edizio berri bat antolatu zen. 15 enpresa proiektu landu ziren, campuseko hainbat ikastegitako 17 lagunek garatuak, eta eskainitako plaza guztiak bete ziren. Agerraldi publiko bat egin da tailerrean garatutako enpresa proiektuak aurkezteko, eta Bic Arabako kideak izan dira ekitaldi horretan.
  - ✓ Laguntza eta aholkularitza eskaini zaie Arabako Campuseko ekintzaileei, AGUDEZIA programatik sortutako proiektuen babes eta tutoretzaren bidez.
  - ✓ Laguntza eta aholkularitza Arabako Campuseko enpresa mintegiko ekintzaileei.
- Lankidetzan "Araba Ekinean" egitasmoaren XVI. edizioan, ekintzailtza ekimenen sarien epaimahaiko kide gisa, eta "Zure ideiak balio du 2017" lehiaketaren deialdian.
- Elkarlanean aritu gara Bic Arabarekin (CEIA), Lankidetzarako Urteko Hitzarmen Espezifiko bat izenpetuta, sustapen, aholkularitza eta laguntza programak garatzeko

Arabako Campuseko ekintzaileentzat eta oinarri teknologikoko enpresa berriak sortzeko (INIZIA Arabacampus programa).

- ✓ Ikasturte honetan, beste enpresa bat sartu da INIZIA enpresa mintegian: GASTHEIZ. Lehenengo sei hilabeteetan aurreinkubazio zonan egon ondoren, 2. inkubazio bulegora igaro da, orain arte I+ Med enpresak erabiltzen zuena (Bic Arabara aldatu da, mintegian egoteko lau urteko aldia amaitu ondoren). Gainerako enpresen jardueraren ebaluazioari dagokionez –Ebaluazio Batzordearen ardura–, denek aldeko txostena jaso dute.

#### 5.2. Lankidetzaren Araban ekintzailetza sustatzeko ekimenekin.

- Lankidetzaren Gasteizko Udalarekin, hitzarmen baten bitartez, eta ekintzailetzarekin eta hiriko oinarri teknologikoko mintegiekin lotura duten gainerako eragileekin (Ajebask, Bic Araba eta Udala).

#### 5.3. Laneratzearekin eta enplegu guneekin zerikusia duten jardueren hedapena.

- LANBIDEREkin elkarlanean, Lehen Aukera programa zabaltzen eta kudeatzen lagundu dugu. Programaren helburua da langabezian dauden, lan esperientziarik ez duten edo esperientzia gutxi duten gazteak kontratatzea.

#### 5.4. Enplegurako Orientazio Zentroaren (Elurreta) koordinazioa.

- Elurreta eraikinean kokatuta dagoen Enplegurako Orientazio Zentroa koordinatu da, haren helburuetako bat izanik lan munduan sartzeko aholkuak ematea eta ikasle egresatuen enplegarritasuna hobetzea.

#### 5.5. Ikasle gradudunen eta enpresen arteko lan bitartekaritza bultzatzea.

- Hainbat ekintza egin dira Arabako Campusean laneratzearekin lotuta: besteak beste, Santander-CRUE-CEPYME beken programan parte hartzea, zentro laguntzaile gisa.

#### 5.6. Laguntza eta aholkularitza eskaintzea ikastegiei enpresetako praktiken kudeaketan.

- Laguntza eman zaie campuseko ikastegiei borondatezko praktiken kudeaketan eta GAUR-PRAKTIGES plataformaren erabileran. Ondorioz, lortu dugu borondatezko praktikak eskaintzen dituzten campuseko ikastegi guztiek plataforma hori erabiltzea. 2016-2017 ikasturtean, 690 praktika egin dira campusean.

5.7. Empleo-Gune 2017 antolatzea, Gasteizko Enplegu Foroa, Gasteizko Udaleko Enplegua eta Garapen Ekonomiko Jasangarria Departamentuarekin elkarlanean.

- 2016ko azaroaren 17 eta 18an, Gasteizko Enplegu Foroa antolatu zen, hiriko Batzar eta Erakusketa Jauregian, Gasteizko Udalarekin elkarlanean. Arabako hainbat erakundek, 10 enpresak eta 800 lagun inguruk parte hartu zuten.

5.8. Laneratze ikastaroak antolatzea campuseko ikastegietan.

- Ikasleen laneratzea helburu duten ikastaroak antolatu dira, Letren Fakultatean eta Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatean. 100 ikasle inguruk parte hartu dute.

5.9. "Erasmus+ IkaslePraktikak UPV/EHU" mugikortasun programa antolatu eta kudeatzea. Beka programa bat da, praktikak atzerrian egiteko, UPV/EHUko gradu, master eta doktorego ikasleentzat.

- Santander Beken antolakuntzan eta kudeaketan parte hartu dugu, praktikak egiteko enpresa txiki eta ertainetan. Aurtengo deialdian, 14 beka banatu dira Arabako Campuseko ikasleen artean (84 beka eman dira guztira).
- 2016-2017 ikasturtean, Arabako Campusak, beste bi campusekin batera, ikasle egresatuentzako "Erasmus+ EPEZ X" mugikortasun programan parte hartu du. 74 gradudunek (Arabako Campuseko 10) praktikak egin dituzte Europako enpresetan.
- 2015-2016 ikasturtean, Arabako Campusak, beste bi campusekin batera, "Erasmus+ IkaslePraktikak" mugikortasun programan parte hartu du. UPV/EHUko gradu, master eta doktoregoko 33 ikaslek praktikak egin dituzte Europako enpresa eta erakundeetan.
- Gainera, Enplegu Foroan, Kontrataziorako Laguntza Baliabideei buruzko saio espezifiko bat antolatu da. Saioan, informazioa eman da UPV/EHUK bere ikasleen eta egresatuen laneratze eta enplegarritasunerako dituen bitartekoei buruz (Global Training beka, Erasmus+ EPEZ beka, Erasmus+ IkaslePraktikak beka, Santander-EUEB-CEPYME beka, enpresetako praktiken programa...) eta LANBIDEk eta Gasteizko Udalak enpleguaren, orientazioaren eta prestakuntzarena lorrean dituzten baliabideei buruz.

## 6. Kalitate, prebentzio eta ingurumen programak

---

### 6.1. Suteak detektatzeko sistemak eta alarma sistemak hobetzea.

- Suteak detektatzeko sistemak eta alarma sistemak hobetzeari dagokionez, iraungitzeaz zeuden suteak itzaltzeko ekipoak ordeztu ditugu, sarrera nagusietako ate automatikoen (Lascaaray eta Micaela Portilla ikerguneak) eta suteen aurkako zentro nagusiaren arteko konexioa hobetu da, eta detekzio sistema zabaldu da Pabilioian eta Elurreta Ikasgelategian (detektagailu kopurua handitu da).

### 6.2. Larrialdi planak eguneratzea eta simulakroak egitea, lan egutegiaren arabera.

- Micaela Portilla Ikergune berrian, autobabeserako plana idatzi dugu. Larrialdi ekipoetako izendapenak egin eta lehenengo simulakroa egin da.
- Gainerako eraikinen ebakuazio simulakroei dagokienez, urteko lan egutegia adostu ondoren Campuseko Segurtasun eta Osasun Batzordean, 2017ko lehen seihilekoari dagozkion simulakroak egin ditugu.
- Autobabes planak eguneratzeko lanak amaitu dira, eraikin hauetan: Lascaaray Ikergunea, Letren Fakultatearen ondoko eraikina, Hezkuntza eta Kirol Fakultatea (Jarduera Fisiko eta Kiroleko Atala), Farmazia Fakultatea, Elurreta Ikasgelategia eta Pabilioia.

### 6.3. Campuseko eraikinen ziurtapen energetikorako zereginak garatzea.

- Campuseko eraikin hauen ziurtapen energetikoak erregistratuta daude: Farmazia Fakultatea, Lascaaray Ikergunea, Letra Fakultatea, Micaela Portilla Ikergunea, Ekonomia eta Enpresa Fakultatea, Pabilioia, Errektoreordetza, Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatea, Letra Fakultatearen ondoko eraikina.
- Eraikin hauen ziurtapenak bidali dira erregistrora: Elurreta Ikasgelategia, Ingeniaritza Unibertsitate Eskola, Hezkuntza eta Kirol Fakultatea (kiroldegia barne).
- Medikuntza eta Odontologia Fakultatearen eraikinak (Txagorritxuko Medikuntza Irakasgunea) ez du ziurtapenik behar.

## 7. Unibertsitate hedakuntza

---

### 7.1. Kultura hedakuntzako jarduerak

7.1.1. Ehu-kultura programaren programazioa eta garapena, erakusketak, antzerkia eta musika barne hartzen dituena.

- Arabako Campuseko Errektoreordetzak kultura hedakuntzako hainbat jarduera antolatu ditu, "ehuKultura Araba" programaren barnean. Guztira, 15 kultura jarduera egin dira, hainbat arte diziplinatakoak. Besteak beste: 5 musika emanaldi, 2 antzerki saio, 2 erakusketa eta 3 liburu aurkezpen (mahai inguruak liburuen egileekin, guztiak UPV/EHUko irakasleak).

7.1.2. Zine programazioa jatorrizko bertsioan, Campus JB zikloaren barnean, hainbat erakunderekin elkarlanean.

- 3 zine proiektio eskaini ditugu jatorrizko bertsioan eta azpituluekin, hainbat gairen inguruko hiru ziklotan banatuta. Jarduera hauek antolatzeko orduan, kontuan hartu dira bai arte joera berriak eta nazioarteko eskaintza, bai tokiko taldeak eta proposamen originalak. Euskarazko jarduerak ere sustatu ditugu.

7.1.3. Kultura hedakuntzako jarduerak zabaltzea tokiko prentsan eta prentsa espezializatuan, sare sozialen, prentsaurrekoen eta abarren bidez.

- Arabako Campuseko kultura jarduerak oihartzuna izan dute tokiko prentsan eta agerkari espezializatuetan. Gainera, eginko ekintzak sare sozialen bidez zabaldu dira (facebook eta twitter).

7.1.4. Bultzada hiriko kultura agenteen arteko lankidetzak akordioei (Montehermoso, Gauekoak, Vital Kutxa Fundazioa eta Artium).

- Unibertsitate hedakuntzarako jardueren artean, Gasteizko hainbat kultura eragileekiko lankidetzak sustatu dugu, eta hitzarmenak sinatu. Besteak beste: Artium Museoarekin, ikasleek praktikak egin ditzaten; Mendizabala Institutuarekin, campuseko kultura jarduerak grabatu eta editatzeko; eta Gasteizko Udalaren menpeko Film Office-rekin, CORTADA jaialdiarekin lankidetzan aritzeko. Bestetik, lankidetzak hitzarmen bat sinatu dugu Vital Fundazioarekin, CORTADA jaialdia antolatzeko. Jaialdi hori Goya Sarietarako jaialdi kalifikatzaile gisa onartu du Espainiako Zinemaren Akademiak. Bere aldetik, EGEDA gestio erakundeak Forqué Sarietarako jaialdi kalifikatzaile gisa onartu du. Azkenik, AIC Film Laburren Espainiako Elkarteak kalitate ziurtagiria eman dio lehiaketari. Halaber, lankidetzak

sustatu dugu ere hiriko beste kultura eragile batzuekin: Eusko Ikaskuntza, Santxo Jakituna Fundazioa, Euskalerrriaren Adiskideen Elkarte eta Montehermoso Kulturunea, lankidetzak akordioak gauzatzeko, Arabako gizartean eragina izango duten kultura jarduerak antolatzeari begira.

7.1.5. Kultura jarduerak sustatzea campusean (batzarrak, mintegiak, tailerrak, ikastaroak eta jardunaldiak), laguntzak emateko deialdiaren bitartez.

- Hainbat kultura ikasgela eta tailer antolatu ditugu. Era berean, laguntzak eman ditugu campusean biltzarrak, mintegiak, ikastaroak eta kultura jarduerak antolatzeko.

7.2. Unibertsitate irudia hedatzeko jarduerak

7.2.1. Iritzi artikuluen lehiaketaren deialdia.

7.2.2. Kontakizun labur fantastikoen lehiaketaren deialdia.

7.2.3. Gasteizko CORTADA laburmetraia jaialdiaren XX. edizioaren deialdia.

7.3. Kirol jarduerak

7.3.1. Kirol lehiaketetan parte hartzea.

- Guztira, 1.686 kirolarik parte hartu dute lehiaketetan (1.133 gizon eta 553 emakume).
- Zabalki Nazioarteko Unibertsitate Pilota Txapelketa. Arabako Campuseko Ibai Baron Aisa, Aitor Alduntzin Iriarte eta Julen Garjon ikasleak sarituak izan dira VII. edizioan, hiru urtez baino gehiagoz parte hartzeagatik eta hainbat domina irabazteagatik.
- Euskadiko txapelketa: Arabako Campusak gizonezkoen modalitate hauetan irabazi du: padela, squash, mahai tenisa, areto futbola, esku pilota (buruz burukoa eta bikoteka). Emakumezkoen modalitateetan: errugbia, eskubaloia, areto futbola eta tenisa (bikoteka).
- UPV/EHU txapelketa: Arabako Campusak gizonezkoen modalitate hauetan irabazi du: mahai tenisa, padela, areto futbola, esku pilota (buruz burukoa eta bikoteka). Emakumezkoen modalitateetan: errugbia, eskubaloia, areto futbola eta tenisa (bikoteka).
- "Zuhatza Abentur", Arabako Campuseko fakultate eta eskolen artean antolatutako txapelketa, Zuatzako Uhartean. 64 lagunek parte hartu dute (32 emakume eta 32 gizon).

### 7.3.2. Lauhileko ikastaroak eta beste kirol jarduera batzuk.

- Jarduera fisikoa sustatzeari dagokionez (lehiarik gabeko jarduera gidatua), ikastaro sorta zabala antolatu dugu, eta 344 pertsonak parte hartu dute guztira (285 emakume eta 59 gizon).
- Lankidetzak hitzarmena sinatu dugu Gasteizko Udalarekin, kirol irakaskuntza eta kirola bera bultzatzeko unibertsitateko kideen artean.
- Udal instalazioetarako sarrera libre ahazbidetzen duten 428 Herritarren Udal Txartel (HUT) egin dira.
- Kirol Bidean udal kanpaina bultzatu dugu, naturan eginiko jardueren programaren baitan; 108 pertsonak parte hartu dute (39 emakume eta 69 gizon).
- Lankidetzak Hitzarmena Gaztedi Errugbi taldearekin, errugbi eskola bultzatzeko.
- Elkarlana Itzaropena elkartearekin (ikusmen desgaitasuna duten pertsonen elkarte), GOALBALL jarduerak bultzatzeko unibertsitateko kideen artean.
- Gainera, lankidetzak akordioak egin ditugu 16 gimnasio eta kirol elkarte pribaturekin. 317 ikasle eman dute izena (231 emakume eta 86 gizon).
- Elkarlanean aritu gara hainbat erakunderekin (hala nola Estadio Fundazioarekin, Kirol Federakuntzen Arabako Federazioarekin...) zenbait gairi buruzko hitzaldiak eta solasaldiak eskaintzeko: ariketa fisikoa, osasuna, kirola eta desgaitasuna, kirol psikologia... Ikasturte honetan, 16 hitzaldi antolatu dira.
- 23 ziurtagiri eman ditugu Arabako Campuseko goi mailako eta errendimendu handiko kirolarien tutoretza plana egin nahi izan duten ikasleentzat.
- 655 ikasle, azkenik, kredituen aitortzen eta transferentziarako ziurtagiriak eskatu dituzte, graduko ikasketetan.